

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Behin betiko onespena ematea udal kirol instalazioen erabileragatik, jasotako zerbitzu publikoengatik eta administrazio jarduerengatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketari

Udalbatzak, 2025eko ekainaren 27ko ohiko bilkuran, erabaki zuen udal kirol instalazioen erabileragatik, jasotako zerbitzu publikoengatik eta administrazio jarduerengatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen ordenantza fiskala aldatzea.

2025eko uztailaren 4ko ALHAOn (75 zenb.) eta udaletxeko iragarki taulan iragarkia argitaratuz jendaurrean jarri eta gero erreklamaziorik edo iradokizunik egin ez denez, aldaketak behin betiko onetsi dira.

1/2021 Foru Dekretu Arauemailea dela bide onetsitako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bateginaren 19. artikulua xedatzen duena aintzat harturik, aldaketa honen testu osoa txertatuko da jarraian, legezko ondorio guztietarako eta, bereziki, indarrean hasteari doakionez.

Ordenantzak aldatzeko erabakiaren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da jurisdikzio horretako arauak xedatutako eran eta epeetan, aipatutako testu bateginaren 21. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Honela geratuko da idatzita administrazio jarduerengatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantza

I. eranskina, epigrafeak.

a) Antzetzutako bisitak, tarifa, udal honek antolatutako antzerki bisitetan izena emateagatik, 6,00 euro; 7 urtetik beherakoak, doan.

d) Udalak antolatutako jolas txokoetan parte hartzeagatik, 60,00 euro hamabostaldi bakoitzeko. Gabonetan eta Aste Santuan, zenbateko hori hainbanatuko da jolas txokoak egiten diren egunen arabera.

Eltziego, 2025eko irailaren 2a

Alkatea

JUAN CARLOS URIBE RUEDA